

Hitza,
**esandakoa egiten
dugu.**

Giltza,
**zabal dezagun
egiteko aukera.**

Palabra, cumplimos lo que decimos.

Llave, abramos la oportunidad de realizarlo.

The logo for Abotsanitz features a stylized white graphic above the brand name. The graphic consists of three rounded, arch-like shapes that resemble a stylized 'm' or a series of connected arches. Below this graphic, the word 'abotsanitz' is written in a bold, white, lowercase sans-serif font. The entire logo is set against a solid dark green background.

abotsanitz



Igor Enparan Araneta

Lan zientzietan lizentziatua, Abotsanitzeko bozeramalea.

Hitzaurrea

Hondarribitik eta hondarribiarren alde lan egiten dugu. Modu independentean, beste egitura handiagoengandik libre, dabilen talde bakarra gara. Horrek berezitzen du Abotsanitz besteengandik.

Gogo-biziz herri mugimenduetatik erakundeetara murgiltzeko erabakia hartu genuen. hasierako energia horri udal lanketaren esperientzia gehituta indarberrituta gatoz.

Modu berritzailean eta hurbilekoan egiten dugu lan, erabakiak bertan eta bertakoekin hartzeko eta Hondarribia politikarien interes eta handikerietatik babesteko.

XXI. mendeko udala behar dugu, modernoa. Oztopoak ezabatu eta erraztasunak jarriko dituen; klientelismoa gainditu eta herritar guztiei zerbitzu emango diena. Helburu honekin egin ditugu Hondarribiko Udala kudeaketa eredu berrietara egokitzeko proposamenak.

Oso garrantzitsua iruditzen zaigu herritarrek beraien egunerokan eragingo dien erabakietan inplikatu eta parte-hartu ahal izatea horregatik eskubide hau bermatzeko eskaerak egin ditugu. Gauzatu nahi diren ekimenetan Elkarteen parte-hartzea bermatzea ere oso garrantzitsua da, arlo bakoitzean lanean dauden elkarteekin batera lan egitea. Herrigintza gure filosofiaren oinarrietako bat da eta kolektibizazioa sustatu eta bultzatuko dugu.

Abotsanitz ez da gauza bat esan eta bestea egiten duen horietakoa. Hondarribian bizitzeko eta lan egiteko dauden arazoan aurrean neurriak jartzeko eskatu dugu. Gazte, familia eta adineko pertsonentzako etxebizitza soziala egitea ahalbidetuko duen eredia mahai gainean jarri dugu Hondarribian Bizi Nahi Dugu kanpainaren bitartez. Bertan kontsumitzeko aukera egonkortzeko herriko ekoizle zein artisauentzat merkatu-estalia sarritan eskatu dugu eta gure komertzioa babesteko lanean gabiltza, horregatik egon gara Makro-outletaren proiektuaren aurka. Zaldunbordaren proiektua suntsigarria zen bai bertako komertzioarentzat, baita ingurumenarentzat ere. Azken honen defentsan talde ekologistekin lankidetzan aritu gara

eta proposamenak egin ditugu. Glifosatoaren erabilera debekatzea lortu dugu eta Jaizkibel mendia babesteko basozaina lortzeko lanean dihardugu.

Hondarribiarron nortasuna gure hizkuntzak, kulturak, ondareak eta memoriak osatzen dute. Hauek babesteko eta indartzeko udal zein herri-mailan egin dugu lan. Urtero-urtero aurrekontuetarako proposamenak, mozioak eta proiektuak aurkeztu ditugu eta Aiza kultur-elkartearen dinamika martxan jarri dugu herrigintzatik arlo hauei bultzada emateko.

Herri gisa makina bat aukera ditugu garapen eraginkorra egiteko, baina pasa den mendean hiltzatuta dagoen Udal honek, modernitatera igarotzeko oztopoak besterik ez ditu jartzen bidean. Aurrera egiteko, itxita dauden ateak ireki, alfonbrak altxatu eta kutsatutako airea berriztatu behar dugu. Hobekuntza honetan buru izateko gaitasuna frogatua duen pertsona taldea proposatzen dugu Abotsanitzetik.

Aldaketaren giltza zurea / gurea / guztiona da.

Introducción

En Abotsanitz trabajamos desde y para Hondarribia. Somos el único grupo independiente, libre de ataduras a estructuras superiores, y eso nos distingue del resto de las formaciones políticas.

Cuando desde el movimiento popular abordamos las instituciones lo hicimos con un entusiasmo que se ha visto reforzado por la experiencia del trabajo municipal de estos últimos años. Hemos sido innovadores y cercanos, intentando tomar las decisiones *in situ* y con la gente, intentando proteger a Hondarribia de los intereses y la soberbia de los políticos.

Consideramos que Hondarribia necesita un ayuntamiento del siglo XXI, moderno. Que elimine barreras y ofrezca facilidades, que supere el clientelismo y dé servicio a toda la ciudadanía por

igual. Nuestras propuestas se basan en estos principios, para poder adecuar el Ayuntamiento a los nuevos modelos de gestión.

Nos parece esencial que la ciudadanía se implique en las decisiones que le afectan a diario; por eso pedimos que se garantice el derecho a la participación, y también el derecho de las Asociaciones a tomar parte en las iniciativas que se planteen, posibilitando el trabajo conjunto con dichas asociaciones en cada área. El municipalismo (“herrigintza”) es uno de los pilares de nuestra filosofía, por eso hemos impulsado e impulsaremos siempre el trabajo colectivo.

Abotsanitz no es de los que dicen una cosa y hacen otra.

Trabajaremos para dar solución a los problemas de vivienda y trabajo que existen en el pueblo. Con la campaña **Hondarribian bizi nahi dugu** hemos puesto sobre la mesa un modelo que

permitiría el acceso a la vivienda social a jóvenes, familias y personas mayores.

Para impulsar un modelo de consumo local, hemos propuesto reiteradamente un mercado cubierto para agricultores y artesanos. En defensa de nuestro comercio, y también del medio ambiente, nos hemos plantado ante iniciativas destructivas como el macro *outlet* de Zaldunborda, colaborando y realizando propuestas junto a grupos ecologistas y de comerciantes. Hemos conseguido prohibir el uso del glifosato y estamos trabajando para conseguir un guarda forestal para el monte Jaizkibel.

La identidad hondarribitarra la conforman nuestra lengua, la cultura en general, el patrimonio y la memoria. Para su protección y fortalecimiento trabajamos tanto en el ayuntamiento como en la calle; todos los años hemos presentado propuestas para mejorar los presupuestos,

además de mociones y proyectos. Para impulsar el trabajo cultural hemos puesto en marcha la asociación **Aiza!**

Como pueblo tenemos infinidad de posibilidades de desarrollo, pero este Ayuntamiento, anclado en lo peor del siglo pasado, no pone sino obstáculos a la renovación y la modernidad. Para avanzar tenemos que abrir puertas, sacudir alfombras y renovar el aire contaminado.

Para esta tarea Abotsanitz propone un grupo de personas con demostrada capacidad de trabajo y liderazgo.

La llave o clave del cambio está en tu mano, en la nuestra, en la de todos.



Estitxu Urtizberera Sorzabal
Soziologian lizentziatua. LHko irakaslea.



Lupe Queiruga Oronoz
Administrazioa eta finantzetako Goi-mailako teknikaria. Administratiboa.

Hondarribian bizi ahal izateko giltza

Norberaren herrian bizi eta zahartu nahi izatea desira normala da baina geroz eta enpresa zailagoa bihurtu da Hondarribian, kasu askotan ezinezkoa. Inork bere borondatearen kontra hiritik alde egin ez dezan lan egingo dugu.

HAPOA izango da legealdiko lanketa estrategiko garrantzitsuena, **etorkizuneko** hiri-eredua diseinatzen baitu. **Herritarren partehartzearekin** egitea ezinbestekoa da eta horrela aldarrikatu dugu. Abotsanitzentzat hiri-jasangarriaren oinarrian bitokia, mugikortasuna eta ekonomia daude.

Pertsona gazte, heldu eta nagusiei egokituko zaien **etxebizitza duin** eta egokiak jasoko dituen tresna

bilakatuko dugu; Helburu hori lortzeko **etxebizitza publikoen sustapena** da giltza. Udala etxebizitza publikoaren sustatzaile bihurtzea da herrikoak lehenetsiko dituen eredu lortzeko formula. Gainera, sustatuko diren **babestutako etxebizitzak alokairuzkoak** izan behar direla uste dugu, eskubide hori ahalik eta gehien zabaltzeko eta bitoki-beharrei benetako erantzuna emateko. Neurri hauek merkatu libreko etxebizitzaren prezioan eragina izango du tentsioa baretuz.

“Babes ofizialeko etxebizitzak, noizko?”

“HAPO, gora ta behera, zeinen interesei erantzuten dio benetan?”

Etorkizuneko hirian kotxearen presentzia murriztu behar da. **Mugikortasun** eredu kutsakorak alde batera uzteko alternatiba erakargarriak eman behar

dira; hiri-ereduak asko lagundu dezake, zerbitzuak eskuragarriagoak jarriz eta erdigune bat baino gehiago sortuz.

Hondarribian dugun sektore ekonomikoen **desorekari aurre egitea** da beste giltza. Dauzkagun ezaugarriak baliatuz ekonomia jarduera **bertakoa eta jasangarria** sortzeko oinarriak daude. Nekazaritza, Abeltzantza eta **Arrantza indartzeko** lan egin behar dugu, industria sektore eraldagarri eta jasangarria sortu eta sektore ekonomiko ezberdinen arteko sinergiak lortzea da gure helburua.

Ekonomia sozial eta solidarioa sustatuko duen “ekintzaitza” programak abian jarriko ditugu, pertsonen proiektuak Hondarribian garatu ahal izatea erreala bihurtzeko.

Llave que posibilite la vida en Hondarribia

Querer envejecer en tu propio pueblo es un deseo natural que en Hondarribia se ha convertido en una empresa cada vez más difícil, frecuentemente imposible. Trabajaremos para que nadie abandone la ciudad en contra de su voluntad.

“¿Para cuándo las viviendas de protección oficial?”

“A vueltas con el PGOU, ¿a qué intereses responde realmente?”

El **PGOU** (Plan General de Ordenación Urbana) será el proyecto estratégico más importante de la legislatura porque diseña el modelo de ciudad del futuro. Es



Aitzol Arroyo Tumas

Historian graduatua. Memoria historikoko teknikaria.



Josu Peña Alza

Gizarte politika eta dependentzian masterra. Gizarte Langilea.



Tamara Yaoska Sastre Castillo

Psikopedagogian lizentziatua. Premia Bereziko Heziketa irakaslea.

imprescindible hacerlo con la participación ciudadana, y así lo reivindicamos. Para Abotsanitz los pilares de la ciudad sostenible son el alojamiento, la movilidad y la economía.

Queremos que dicho PGOU se convierta en la herramienta que posibilite **residencias dignas** y adecuadas para personas jóvenes, adultas y ancianas, y la clave es convertir el Ayuntamiento en un promotor de **vivienda pública protegida** que dé respuesta a las necesidades

reales, priorice a la ciudadanía local y **promueva el alquiler**. Esto, además, rebajaría notablemente la tensión en el mercado de la vivienda libre.

Hay que reducir la presencia del coche en la ciudad del futuro. Tenemos que ofrecer alternativas atractivas a los **modelos de movilidad** contaminantes. En ese objetivo puede ser de gran ayuda la opción que propone servicios más accesibles y crear más de un centro urbano.

Para abordar la inestabilidad de los sectores económicos de Hondarribia necesitamos otra llave, **la economía social y solidaria**, que posibilite el desarrollo de proyectos autóctonos. Existen las bases para el desarrollo de una actividad económica **propia y sostenible** y tenemos que fortalecer tanto la agricultura, la ganadería y la pesca como la industria, impulsando sinergias entre los diferentes sectores y potenciando los programas de aprendizaje.

Gizarte Kohesiorako giltza

Ongizate sisteman eta pertsona guztientzako aukera-berdintasunean sinisten dugu irmoki. Herritarrez arduratuko den udala behar dugu, trabak jarri ordez **erraztasunak jarriko** dituen, eta jatorri, erlijio, pentsatzeko modu, genero edota adin arrazoiengatik **inor baztertuko** ez duena.




Ortzi Alonso Murelaga
Txingudi Zerbitzuak-eko langilea.



Ainhoa Perez Ancisar

Psikopedagogian lizentziatua eta hezkuntza publikoan Berrikuntza arduraduna.



Iker De la Linde García

LHko irakaslea eta kirolaria

Giza eskubideak bermatzeko giltzak **politika-sozialak** garatzea, **Gizarte-zerbitzuen** saila indartzea, **errola soziala** ondo kudeatzea eta **teknikari propioa** izango duen **Berdintasun saila** sortzea izango dira.

“Marketing’ gabeko programa serio eta eraginkorrak.”

“Arlo sozialari merezi duen lekua eman behar diogu.”

Ateak zabaldu behar dizkiogu egoera zaurgarri edo zailtasun ekonomiko eta sozialeko egoeran egon daitezkeen pertsona guztiei. Hau lortzeko giltza **Biztanleen Arreta Zerbitzua (BAZ) eredu berria** diseinatzea da. Sendoagoa, baliabide gehiagorekin eta sail ezberdinak zentralizatuko dituen. Herritarrei, Kudeaketak egiterako orduan, erraztasunak jarri behar dizkiegu atentzio

berezia jarriz arrakala digitala pairatzen duten horietan. Burokraziaren alderik hotzena gainditu eta **kudeaketa gehienak leku berean** egiteko aukera emango dugu.

Llave que posibilite la cohesión social

Creemos firmemente en el estado del bienestar y en la igualdad de oportunidades. Necesitamos un ayuntamiento preocupado por su ciudadanía, que sustituya trabas por facilidades y que no excluya a nadie por su origen, religión, forma de pensar, género o edad.

Para garantizar los derechos humanos la llave es el desarrollo de políticas comunitarias. Tenemos que reforzar el departamento de Servicios Sociales, agilizar la gestión del padrón social y crear un Departamento de Igualdad con su propia técnica.

“Programas eficaces y serios, sin ‘Marketing’.”

“Tenemos que darle el lugar que se merece al área social.”

Debemos abrir las puertas a todas las personas que se encuentran en situación de vulnerabilidad o de dificultad económica y/o social. La clave para conseguirlo es el diseño y aplicación de un nuevo modelo de **SAC** (Servicio de Atención a la Ciudadanía).

Más sólido, con más recursos y que centralice a los diversos departamentos. Tenemos que facilitar las gestiones de la ciudadanía, ayudar a salvar la “brecha digital” y a superar el lado más frío de la burocracia, posibilitando que **la mayoría de las gestiones se realicen en el mismo sitio.**

Herri Nortasuna sendotzeko giltza

Historia handiko herria da Hondarribia, eta gertatutakoen testigu diren ondare-elementu anitz ditugu balioan jarri beharrekoak. Hondarribiarron nortasuna, gure arkitekturak, arte eta literaturak, gure bizimoduak, elkar-bizitzak, ohiturak, sinesmenek, balore-sistemak eta gure hizkerak osatzen dute.

Euskararen erabilera maila sustatzeko esfortzu berezia egin behar dugu. Ekintzak egin, haur, nerabe eta familiak euskarazko ereduak sortzeko inplikatu, **euskaraz bizitzea erakargarri** egiteko, euskara aberri izateko.

Ondasunak babestu eta herritarren eskura jartzea giltza garrantzitsua da. San Telmo gaztelua, Polborina



Arantxa Amunarriz Amunarriz

Udal eraikinen garbitzailea. Langileen ordizkari ohia.



Maria Jesus Bolaños Reyero

Medikua



Egoitz Alcaraz Franganillo
Soziologian Lizentziatua. DBHko irakaslea.

“Euskara, arrantza, ez dira soilik estanpak, gure kultura da.”

“Auzoek ere definitzen gaituzte herri bezala, gerturatu ditzagun.”

eta Ramery jauregia bezalako eraikuntzak **ireki eta edukiz bete behar ditugu**; usadio, ohitura eta egiteko-moduak gal ez daitezen **transmisio bideak** bultzatu eta sortuta dagoen


materialari ikusgarritasuna emango diogu. 36ko gerran erbestera eta itzuli ez diren inguruko lanketa bat bultzatuko dugu, Giza Eskubideak oinarri hartuz, gure aiton-amonen memoria berreskuratzeko bidean pauso bat emanez.

Kulturaz disfrutatzen **programazioa auzoetara** zabaltzea ezinbesteko giltza da. Adin guztietako pertsonak asetuko dituen programazioa sortuko dugu bereziki esfortzua nerabe eta adinduetan jarrita. Herrian sortzen diren ekimenei

aukera emango diegu. Hondarribia sormen hiria da eta disziplina anitzetako (literatura, musika, arte plastikoa, argazkilaritza, dantza, antzerkia,...) sortzaileak ditugu. Espresio mota hauei baliabideak, lanerako espazioak eta erakustokiak eskaini behar zaizkie. Horretarako herriko sortzaileekin batera beharrezko espazioak identifikatu eta egokituko ditugu.

Natur-ondareak babes berezia merezi du. Jaizkibel mendia eta Natura 2000

Sarearen eremuan ditugun **Babes Bereziko Eremuak zaintzeko baliabideak** jartzea beste giltza garrantzitsu bat da. Hiri barruan, eremu berdeak balioan jarri behar dira eta **zuhaitzen kudeaketa zuzendu** beharra dugu.



Ane Carrera Queiruga
Biomedikuntzako Ikaslea



Joxe Angel Etxabe Iturzaeta
Arrantzalea.



Esti Rubio Alcain
Mendelukoa. Sektore nautikoko langilea eta kirolzalea.

Llave que posibilite el fortalecimiento de la Identidad Local

Hondarribia es un pueblo con mucha historia y tenemos que aprender a valorar los elementos patrimoniales que son testigos de ella. La identidad hondarribitarra la configuran el idioma, el arte y la literatura, la arquitectura, las costumbres, las formas de vida, las creencias y los sistemas de valores.

El fomento del uso del euskara requiere de un esfuerzo especial por nuestra parte. Debemos organizar actividades que impliquen a niñas y niños, adolescentes y familias, creando puntos de referencia para **que vivir en euskera sea atractivo**; para que el euskera sea patria.

“Euskara, arrantza, no sólo son postales, sino las raíces de nuestra cultura.”

“Los barrios también nos definen como pueblo, acerquémonos.”

La protección de nuestra riqueza cultural es clave, así como ponerlas a disposición de la ciudadanía. Debemos **abrir y llenar de contenido edificios** como el castillo de San Telmo, el Polvorín y el palacio Ramery.

Potenciaremos los canales de transmisión que harán posible tanto la conservación de las costumbres y formas de hacer del pasado como la visibilidad de los materiales que se recuperan. En cuanto a la memoria histórica y los Derechos Humanos, vamos a impulsar un importante trabajo sobre los exiliados que no retornaron tras la guerra del 36.

Otra llave es la ampliación de **la programación cultural a los barrios.**

Una programación que satisfaga a gente de todas las edades, haciendo hincapié en personas adolescentes y ancianas. Debemos dar oportunidad a las iniciativas locales. Hondarribia es una ciudad de personas creadoras multidisciplinares (literatura, música, artes plásticas, fotografía, teatro, etc.), junto a las cuales debemos identificar y adecuar los recursos y espacios de trabajo y de exposición que precisan.

Para la protección especial que merece nuestro patrimonio natural, la clave son los **recursos para la conservación de las Zonas de Especial Protección** que se ubican en el monte Jaizkibel y la Red Natura 2000. Dentro de la ciudad, además de destacar la importancia de las zonas verdes urbanas, necesitamos **corregir la actual gestión del arbolado.**

Herritarren osasuna bermatzeko giltza

Osasuna ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera da, eta ez bakarrik afekziorik edo gaixotasunik eza. Udalak funtsezko zeregina du osasunari dagokionez; izan ere, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa da eta horregatik Osakidetzaaren aurrean herritarren beharren alde lan egiteko ardura du.

Orain arte egin dugun bezala, gardentasuna eskatzen diogu Jaurlearitzako osasun sailari eta presioa egiten jarraituko dugu Hondarribitarron eskura osasun sistema egoki eta integral bat izateko. Hondarribiko anbulatorioan espezialidade berriak gehitzeko aldarrikatzen dugu. **Handitu, berritu eta hobetu** izango dira gure giltzak.



Suni Gutierrez Echeverria
Kaletarra.



Mikel Alkain Goñi
Ikaslea.



Maddi Errasti Jauregui
Kimikan lizentziatua. Enpresaria.

“ Osasunakin
bromarik ez. Zer
dela-ta zerbitzuak
pobretu?
*‘Handitu-Berritu-
Hobetu!’ ”*

“Kiroldegiaren tari-
fak Gipuzkoako ba-
tazbestekora jeitsi.”

Jarduera fisikoa sustatuko dugu; izan bakarka modu informalean egiten dena, izan kirol taldeekin elkarlanean egiten dena. Hondarribian, eremu publiko

zoragarria dugu kirola eginez gozatzeko eta baditugu ere kirola “indoor” egiteko instalazioak. Kaleko zein estalitako kirol instalazio hauek, erabiltzaileen beharrak asetzeko modukoak izateko eta egoera duinean mantentzeko lan egingo dugu. **Instalazio hauen kudeaketa-ereduaren gaineko debatea** izango da giltza eta guk izaera publikoa eta oinarri soziala lehenetsiko ditugu.

Aurrez aipatu bezala, garapen fisikoaz gain osasun mental eta emozionala

ere zaindu behar ditugu. Kontsumo (sustantziak, jokia, mundu-digitala) eta jarrera desorekatuetan erortzea eta bakardadeak eragin dezakeen isolamendua ekiditeko lan egingo dugu jakinda pertsona zaurgarrienak gazteak eta adinduenak direla.

Egoera honi aurre egiteko eta jarrera osasuntsuak sustatzeko **Prebentzio Komunitario eguneratu bat eta zahartze aktiborako baliabide** eta plana martxan jartzea dira giltzak.

Llave que garantiza la salud de la ciudadanía

La salud es un estado de bienestar físico, mental y social, y no sólo la ausencia de enfermedad. El Ayuntamiento tiene un papel fundamental en esta materia. Es la administración más cercana a la gente y tiene la responsabilidad de velar en primera instancia por las



Ainhoa Zabaleta Rueda

Medikuntzan lizentziatua. Lehen arretako pediatra.



Juanan Cornejo Reyes
Langilea.



Izaskun Eizaguirre Eguiguren
Pensionista. Gizarte eta kultur eragiletako kidea.

necesidades de la ciudadanía ante Osakidetza.

Seguiremos exigiendo transparencia al departamento de salud del Gobierno Vasco y presionando para garantizar a la población de Hondarribia un sistema sanitario integral. Reivindicamos la incorporación de nuevas especialidades al ambulatorio. Nuestras llaves son: **ampliar, renovar y mejorar.**

“ Con la salud no se juega. ¿Por qué dismantelar los servicios?

‘Ampliar-Renovar-Mejorar!’ ”

“Equiparar las tarifas excesiva del polideportivo a la media de Gipuzkoa”

Fomentaremos, como hasta ahora, la actividad física, tanto individual e informal como en equipos deportivos.

Disponemos en Hondarribia de un espacio público maravilloso para disfrutar con el deporte y también de emplazamientos para hacerlo *indoor*.

Trabajaremos para que todas las instalaciones deportivas, tanto de calle como cubiertas, estén a punto y satisfagan las necesidades de los usuarios. Es clave **el debate sobre el modelo de gestión de dichas instalaciones.**

Nuestra postura es clara: priorizamos su carácter público y su función social. Además del progreso físico, está también la salud mental y emocional. Trabajaremos en la prevención de consumos perjudiciales (sustancias, juego, mundo digital), en el manejo de actitudes desequilibradas y contra el aislamiento que puede provocar la soledad. Somos conscientes de la mayor vulnerabilidad de las personas más jóvenes y las de más edad.

Las llaves para afrontar estas situaciones y promover actitudes saludables son la

actualización del **plan de Prevención Comunitaria** y la puesta en marcha del **plan de Envejecimiento Activo**.

Herritarrak asetuko dituen kudeaketarako giltza

Udalak, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioak, Irekia, Gertukoa, Gardena eta Etorkizunera begiratzen duena izan beharko luke. Horretarako eraldaketa bat behar du.

Helburu hori lortzeko alfonbrak altxatu behar dira, udalaren benetako egoera azaleratu, diagnostikoa egin eta kudeaketa hobetzeko neurriak planteatu.

Hasteko, **aurrekontu errealak** egin eta gauzatuko ditugu. Hori lortzeko giltza da urtean zehar garatu behar diren **proiektuak**

“Udal zerbitzuak ez daude herri honen beharren mailan.”

“Ordaintzen diren zergak ez dira inondik ere herritarrei zerbitzutan bueltatzen.”

herritarren parte-hartzearekin eta aurrez formulatzea. Proiektuak definitutakoan **kontratazio plan egoki** bat egingo dugu, guztionak diren **baliabideak modu egokienean** erabiltzeko.

Eraldaketa hau emateko bigarren giltza Udaleko **lanpostuen egitura eguneratua, indartua eta duina** lortzea da. **Udalaren barne egitura modernizatu** eta sailak eguneratu behar dira herritarren beharrei eta egoera berriei erantzuteko gaitasuna lortzeko, **arreta hurbilagoa** eskaintzeko eta **tramitazioak arintzeko**.



Ibai Labaien Zapirain

Langilea, sindikalista. Kultur eragileetako kidea.



Pío Perez Aldasoro

UPV/EHUko irakaslea.



Kristina Alza Albistur

Etxez etxeko zerbitzuko langilea. Mendizalea eta feminista.

Llave para una gestión satisfactoria del Ayuntamiento

El Ayuntamiento tiene que ser abierto, cercano, transparente y con visión de futuro. Para ello hace falta un cambio.

Hay que sacudir las alfombras para que aflore la situación real, para poder hacer un diagnóstico y tomar las medidas oportunas.

Para empezar tenemos que elaborar y materializar **unos**

presupuestos reales. La clave es **la participación ciudadana** en su elaboración y que esta se realice **con antelación.** Una vez definidos los proyectos es fundamental **un adecuado plan de contratación para un aprovechamiento óptimo de los recursos comunes.**

Otras claves son el **reforzamiento, la modernización y la dignificación de la estructura interna del Ayuntamiento,** actualizando la organización de los puestos de trabajo y de los departamentos para

“ Los servicios municipales no están a la altura de las necesidades de este pueblo. ”

“Los impuestos que pagamos no se nos revierte ni de lejos en servicios.”

responder adecuadamente a las necesidades de la ciudadanía ofreciendo **una atención más cercana y agilizando los trámites.**

Alardearen gatazka desblokeatzeko giltza

Abotsanitzentzako Alardea herriko ondarea da eta herritar guztiek askatasun osoz erabaki behar dute Irailaren 8an zer egin. Horretarako, alardea herritarren eskuetara itzultzeko bidea hasi behar dugu. Ondarea babestu



Juan Ortiz Armendariz
Pensionista.



Xabier Agirre Artola
Jubilatua.



Maxuxa Larrarte Campandegui
Preso politiko ohia eta langilea.

“Berdintasunean aurrerapausuak eman ahal izateko alardearen gaiari nahita nahiez eutsi behar diogu.”

eta etorkizuna bermatzeko garai berrietara egokitzeko gure lanketan giltza izan diren oinarriei eutsiko diegu: pentsaera ezberdina dutenen arteko errekonozimendua sustatzen, zubiak eraikitzen, elkarrizketa bultzatzen, gatazkaren kudeaketa emozionalean sakontzen eta herria berriz kohesionatzen. Ez dugu herria zatituko duen ekimenik sustatuko.

Ezin dugu ahaztu emakume eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan aurrerapausuak eman ahal izateko giltza alardearen gaiak sortutako egoera desbokatzea dela.


“Para avanzar en igualdad es imprescindible abordar la cuestión del alarde.”

Llave para desbloquear el conflicto del Alarde

Para Abotsanitz el Alarde es patrimonio del pueblo y todas las personas deben decidir libremente qué hacer el 8 de Septiembre.

Tenemos que seguir insistiendo en la vuelta del Alarde a manos de la ciudadanía, protegiendo esta herencia cultural, adaptándola a los nuevos tiempos y garantizando su futuro. Las llaves: fomentar el reconocimiento entre personas de diferente pensamiento, tender puentes, impulsar el diálogo, profundizar en la gestión emocional del conflicto, unir de nuevo a la gente. No vamos a promover iniciativas que dividan al pueblo.

No podemos olvidar que, para poder avanzar en el ámbito de la igualdad de mujeres y hombres, la clave es el desbloqueo de la situación generada por el tema del Alarde.



HONDARRIBIAN

